



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdira aurkeztutakoen onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea eta Balorazio Batzordeko kideak izendatzea.

2020ko azaroaren 19ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabaki bidez, 2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdia eta prozesuaren oinarri arautzaileak onartu ziren.

2021eko urtarrilaren 5eko GAO-BOG-an argitaratu zen erabakia eta EAO-BOEn urtarrilaren 25eko dataz.

2021eko otsailaren 22an izena emateko epea bukatu zen eta hautagai bakarrak eman zuten izena.

Oinarrietako Bostgarren atalean balorazio batzordearen osaketa jasotzen da:

5.1. Deialdi honetako Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Presidentea, Oñatiko Udaltzaingoaren burua.
- Poliziaren Euskal Akademiako kide bat.
- Udalak proposatutako bi kide.
- Idazkaria, Udaleko kide bat.

Ikusita 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Ikusita 16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa, eta zehazki 14. eta 20. Artikuluek diotena.

Ikusita 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza araudia onartzen duena.

2021eko urriaren 29ko Alkate Dekretu bidez (1110. zenbakia), 2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdira aurkeztutako hautagai onartuen eta baztertuen zerrenda behin-behinekoz onartu zen. Dekretu hori web orrian, ediktu taulan eta 2021eko azaroaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (217. Zenbakia).

10 egun balioduneko epean ez dira akatsak zuzentzeko eskaerak egon, beraz behin behineko zerrenda behin betiko onartu behar da.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Oñatiko Alkate naizen honek, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honen bidez,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- 2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdira aurkeztutako hautagai onartuen eta baztertuen zerrenda behin betiko onartzea:

ONARTUTAKOAK

***4977**

Bigarrena.- Hautaketa-prozesu honetako Balorazio Batzordeko kideak izendatzea:

Batzordeburua:

Titularra: Idoia Lazpita Bengoa, Oñatiko Udaltzainburua.

Ordezkoa: Eñaut Unamuno Muguruza, Oñatiko udaltzaina.

Batzordekideak:

Titularra: Angelica Bucarito Achabal.

Ordezkoa: Roberto Blanco Orozco.

Titularra: Ander Okiñena Perez de Albeniz.

Ordezkoa: Lander Urigoitia Lopez.

Titularra: Aitor Escalante Erro, Beasaingo Udaltzainburua.

Ordezkoa: Iker Barriocanal Vitoria, Beasaingo Agente Lehena.

Idazkaria:

Titularra: Ana Jesús Cortabarría Santos, Oñatiko Udaleko administraria

Ordezkoa: Blanca Olalde Inza, Oñatiko Udaleko administraria.

Hirugarrena.- Prozesu honek sortuko dituen gastuak (joan-etorriak eta bertaratzeak) baimentzea.

Laugarrena.- Erabaki hau iragarki-taulan eta www.onati.eus webgunean argitaratzea.

2

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2021eko azaroaren 29an.


ALKATEAK
IZARO ELORZA ARREGI